



## UDAL BATZORDEEN BERRI

LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	ERABAKIAK	HURRENGO SAIORAKO
<b>Ekimen sozio-kulturalak (2017/04/21)</b>  Hurrengo saioa: 2017/05/05	Kizkitzako auzolanaren bukaera ematea eta hurrengo aurreikustea	Auzolanean izandako partaidetza eskertu denoi.  Kizkitzako bukatu: atzealdea raseatu eta pintatu eta fregadera jarri. Altzigarrako iturriaren seinalea jarri.  Txartelak jarri: sua itzaltzeko, zaborra jaisteko eta ura ez tratatua dela adieraziz.	Hurrengo auzolanetarako hainbat ideia: Epelde-Egiluzeazpi bidea, Ibur-Atinzabal bidea, Garbiguneak margotu (Alegia, Mandubia), frontoian pareta, e.a.
	Katilu egunetarako jarduerak eta antolaketa zehaztea	Pott zeramika tailerrak Itsason 25 urte dituela eta, Katilu eguna maiatzaren 13an eta 21ean gauzatzea, arratsaldeko 16:30-18:30etara. Komunikazio taldeak deialdia egingo du.	Apirilaren bukaerarako deialdia zabaldu.
	Maiatzeko irteera prestatzea	Maiatzeko igande batean Nafarroako Itsasora irteera antolatu itsasoar guztiontzat.  Bertakoekin harremanetan jarri, bisitagai diren alderdiak eta bazkari lekuaz aholka diezaguten.	Harreman guztiak maiatzaren 5erako egin, egitaraua osatzeko eta deialdia prestatzeko.
	Udaleku artistikoei buruzko hausnarketak konpartitu eta erabakiak hartzea	Ekainaren azken astean eta uztailaren lehen astean, goizeko 10:30etatik 13:30etara, herriko gazte eta ume guztiei diziplina anitzeko sormen eta espresio aukerak eskaintzea: zeramika, musika, pintura, antzerkia, dantza...	Maite, Ione, Aizpea eta Jennifer-en artean osatuko dute egitasmoa eta aurrekontua. Goierribus-ekoei 10:15etan autobusa igo dadin eskatu.



LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	ERABAKIAK	HURRENGO SAIORAKO
<b>Azpiegitura eta ingurumena (2017/04/22)</b>  Hurrengo saioa: 2017/05/06	Udal ekipamenduarekin jarraitzea	Ordenagailuak eta fotokopiagailua konfiguratzeke eta mantentzea kontratatzeke bi aurrekontu eskatzea.  Movistar-ekoak Itsason ibili dira, huntz optikoaren kontura.	Goisystem eta Lantek-i eskatu.  Labakari honi buruz galdetu eta baita konektibitate egokienaz aditu bati ere kontsultatu.
	Aldundiko teknikariek Ostatu eta Goiko Ostaturako egindako proposamenak aztertzea	Etorlur-eko arkitektoak proposatutako 3 alternatibak aztertu dira. Igogailuaren aukerak baztertu dira. Egokien jotzen dena: udal atea zabaldu eta espaloian plazatzea zabaldu, errepidea atzeratuz. Ataritik etxebizitzarako eta udaletxerako sarrerak egin, gaur eguneko aldatzeko komuna kenduz. Teilatua berritu eta etxebizitza egokitu.  Goiko Ostaturako azterketa estrukturalaren aurrekontua Teknialari eskatu eta diru-laguntzetan sartu. 18.000€ izan litezke eta erdia diruz-lagunduko litzateke. Baina oinarritzakoa da, ezer egiterako.	Paloma arkitektoarekin eta aparejadorearekin aurrerabide hauek landu, ranpak behar duen % e.a.  Apirilaren 28a baino lehen dokumentazioa Ondarearen deialdian aurkeztu. Estudio geoteknikoa 1998an egin zen eta eskuratu beharra dago.
	Alegiako ranpa egitea, eta Alegiako proiektua, parkea, frontoiko ordenantzak, argiteria...	Alegiako Elkarteko ranpa egiteko aurrekontuak eskatu. Lehenik Esti aparejadoreak eskailerena zuzendu.  Gainerako lanak hurrengo fasean egiteko lantzen joan.	Aparejadoreekin elkartu lanak bidera ditzan  Alegiako proiektua lantzen jarraitu.
	Parrokiarekin hitzarmena	Elizako koru azpia erabili ahal izateko.	Hitzarmen proposamen bat planteatu.



LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	ERABAKIAK	HURRENGO SAIORAKO
<b>Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2017/04/25)</b>  Hurrengo saioa: 2017/05/09	Etxeetako data basea egitea eta tabloien kokalekua	Etxe guztietan orria banatzeko zein datu diren esanguratsuen eztabaidatu da: etxearen izena bizitza bakarra denean, deiturak bi daudenean eta Oria kalekoetan. Zozabarron eta Uribarren tabloiak non eta nola jarri planteatu da. Udaletxean buzoia jartzeko beharra dago.	Lehen zirriborroaren gainean jardutea.  Aurrekontuak ezagutuko dira eta hala badagokio egitera bideratu Buzoia erosi
	GPSezko lokalizazioen mapa nola burutu aztertzea	Aparejadoreari A3an plano eskatzea ontzat eman da. Garrantzitsua da lokalizazioaz gain, zein bide hartu behar den etxeetara iristeko. Googlemaps-en egin ditugu frogak eta okerrak daudenez, saiakera bat egin da konpontzeko.	Planoak eskaintzen duen baliagarritasuna aztertu. Googlemaps-en egindako zuzenketa bideratu den frogatu. Hala balitz, piskanaka denak zuzentzen joan.
	Web orriaren hurrengo pausoak ematea	Pasahitzak aste honetan lortzea espero da	Izango den web orri errealaren gainean lan egin
	Artxibo historikoarekin jarraitzea	Apalak montatu ondoren, dagoeneko indizearekin kontrastatu ditugunak (12 karpeta), areto nagusian kokatu	Beste partida bat ekarri eta horrela, guztia osatu arte, ahal dugunean
	Hurrengo Batzarra prestatzea	Hurrengo Batzarra ekainaren hasieran izan daiteke: beste gai batzuen artean, Mankomunitatea definitzeko eta baita Gizarte-langileak zerbitzu honen berri hurbiltzeko.	Antolaketa aurreikusten jarraitu
	Goierri Telebista eta Goierriko Hitzarekin lehen harremanak zehaztea	Ez gara gai honetara heldu	Hurrengoan aztertzeko